



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ESP. ZENBAKIA	2015IPLE0007
SAILA	IDAZKARITZA
GAIA	2015-06-25 OHIKO OSOKO BILKURA

**2015-06-25ko EZOHIKO UDALBATZA**

Bertaratuak

- Jose Luis Ugartemendia Arregi
- Iruñe Echeverria Amilibia
- Pedro Mari Otaegi Urquizu
- Maria Dolores Otaño Garciarena
- Manuel Labaka Garmendia

Idazkaria

- Lierni Muñoa Salaverria

Bilkurari hasiera 20:00 eman zaio.

Aztergaiak

1. Gaia: AURREKO AKTA ONARPENA
2. Gaia: OSOKO BILKURA DATA ZEHAZTEA
3. Gaia: UDALA PARTE DEN ENTITATEETAKO ORDEZKARIAK IZANDATZEA
4. Gaia: KONTU OROKORRA ONARPENA
5. Gaia: ZINEGOTZIEN ERREGIMEN EKONOMIKOA
6. Gaia: PISTINA BAT JARTZEKO LUR SAIL BATEN ERABILERA ESKAERA
7. Gaia: DEKRETUEN BERRI EMATEA

**1.- AURREKO AKTA ONARPENA**

Osoko bilkurak aho batez, 2015-06-13KO eta akta onartu da

**2.- OSOKO BILKURA DATA ZEHAZTEA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehen.- Beizamako Udaleko Ohiko Osoko bilkuren eguna, hileko azkeneko ostirala izango dela, arratsaldeko 18:00etan.

Bigarrena.- Honen berri GAOn argitaratzea.

**3.- UDALA PARTE DEN ENTITATEETAKO ORDEZKARI IZENDAPENA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehen.- Beizamako Udaleko ondorengo ordezkariak izandatzearako, aipatzen diren entitateetarako:



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- UEMA  
Manuel Labaka Garmendia
- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea  
Nekane Otaño Garciarena  
Manuel Labaka Garmendia
- Gipuzkoako Ur kontsortzioa  
Jose Luis Ugartemendia Arregi  
Pedro Mari Otaegi Urquizu
- URKOME  
Pedro Mari Otaegi Urquizu  
Manuel Labaka Garmendia
- SAIAZ  
Nekane Otaño Garciarena  
Irene Echeverria Amilibia
- EUDEL  
Nekane Otaño Garciarena
- Gipuzkoako Foru Aldundia Gazteri sail ordezkaria  
Irene Echeverria Amilibia  
Nekane Otaño Garciarena

Bigarrena.- GAOn argitaratzea.

#### **4.- KONTU OROKORRA ONARPENA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2014ko kontu orokorra onartzea eta TVCPera bidaltzea.

#### **5.- ZINEGOTZIEN ERREGIMEN EKONOMIKOA ARAUTZEA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Ondoren jasotzen den erregimen ekonomikoa onartzea zinegotzientzat:

- Ez dago dedikaziorik duen zinegotzirik.
- Ez dago talde politikorako ordainsaririk
- Plenoan parte hartzeagatik 60 euro asistentziagatik.
- Udaletik kanpo bileren batera joan behar izanez gero, Udalhitzek auratzen duen kilometraje ordainsariak ezartzen dira. ( 2015a 0,29 euro kilometroko)

Bigarrena.- Honen berri GAOn argitaratzea.

#### **6.- PISTINA BAT JARTZEKO LUR SAIL BATEN ERABILERA ESKAERA**

2015eko ekainaren 19ko datarekin, eskaera bat luzatu da igerileku bat jartzeko udal lur zoruan. Igerileku bat ezartzeak berekiko arrisku larriak ditu eta udalak ezin du parte hartu inongo eratan proposamenean jasotzen den egitasmo honetan. Hori dela eta eta irtenbide bat ematearren, udalak egin dezakeen gauza bakarra lur sail bat zeditzea da, lur sail horretan



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

burutzen denaren erabilerarekiko erantzukizun guztia lurraren ustiapen eskubidea lortzen duenari igorriaz.

Ez da posible inongo sistema mixtorik burutzea jasotako proposamenaren arabera eta kontuan harturik epeak gainean ditugula honakoa da osoko bilkurak adostu duena:

Lehena.- Udalak kontzesio administratibo bat egitea domeinu publikoaren erabilera anormal pribatu bat burutzeko Hirusta elkatearen alde, 2015eko uztailetik irailera bitarte, RD1372/1986 legearen 75,78 eta 80. artikulua jasotakoaren arabera, horretarako bi alderdien artean dokumentu bat sinatuko delarik.

1.- Udalak eliza ondoko partzelaren zesia burutzea, elkarte honen alde zuzenean, herrian herriaren sorturik dagoen elkarte bakarra delako eta herriaren interes orokorren ordezkari delako ekimen honetan.

2.- Udalak ez du partzela honen erabilerari loturiko inolako kosturik jasango, elkarteari zeditzen baizaio osotasunean partzela horren erabileraren erantzukizuna eta gain zoruko eskubide eta betebeharrak guztiak.

- Udalak elektrizitate toma bat jartzea baliabidetuko du partzela bertaraino, argi horren kostua Hirustari fakturatuko zaiolarik.
- Udalak herriko iturritik ura hartzea baimentzen du, beti ere honen kostua Hirusta elkarteak bere gain hartu beharko duelarik.

3.- Ezingo dira udal jabetzatan gorde udalarenak ez diren ondasunak eta iraila amaieran partzela bere osotasunean jatorrian jaso zen moduan utzi beharko du Hirusta elkarteak.

4.- Udalak ez du inongo kudeaketarik burutuko partzelaren erabileraren inguruan, udalari dagokionean, Hirustak espreski onartu beharko baitu udal domeinuko partzela honen erabilera pribatiboko eskubide eta betebeharrak.

Bigarrena.- Honen berri interesatuari ematea.

## **7.- DEKRETUEN BERRI EMATEA**

2015eko 29 eta 32 dekretu bitartekoen berri ematea.

Osoko bilkura, 20:45etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jaso gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2015eko ekainaren 26an

Lierni Muñoa Salaverria  
Idazkari Kontu-hartzailea